

“ARAUTZE ETA EREMU DEFINITZE” GALDEAK

1. Herriarteko Publizitateari buruzko Tokiko Araudia (hPTA) Estatu mailako Publizitateari buruzko araudia baino babesleagoa izan behar da eta salbuespenik gabekoa

Ingurumen Kodea baino babesleagoa den eta Kode horri salbuespenik ekartzen ez duen (batez ere ondare aipagarria diren eremuentzat, monumentu historikoen, izaera historikoa, estetikoa edo pitoreskoa duten egoitzen inguruentzat, bereziak bezala zerrendatuak diren guneentzat, bai eta etortzekoa den Eskualdeko Parke Naturalan diren herrientzat) Herriarteko Publizitateari buruzko Tokiko Araudia (hPTA).

Hiri-Altzarien kontratuek blokatzeak sortzen badituzte, hiri-altzarien kontratuen iraungitze-datari muga batzuk aplikatzen ahal dira. Publizitateari buruzko Tokiko Araudiaren arauak kontratuak direla-eta malguagoak egiteko ordez, posible da arauak xede politikoen arabera ezartzea, kontratuen bukaera datara arte salbuespenak ezarriz (Pariseko Publizitateari buruzko Tokiko Araudiaren P3.8.1 eta P3.8.2 artikuluek erakusten duten bezala).

2. Publizitateari osoki babesten duen eremua (hiriko altzariak babestuz ere)

- a. ikastetxeen inguruak
- b. gune historikoen inguruak
- c. hiriko sartzak
- d. eremu naturalak

3. Argidun publizitatea debekatu (publizitate-pantaila digitalak barne)

- lurralde osoan edo gehienezko perimetro batean
- gutienez 10.000 biztanletik petiko herrietan
- gaueko iragarkien itzaltzea, hiri-altzarietakoak barne, 21:00etatik 07:00etara, eta argizko idazkunen itzaltzea aktibitateen hestetik irekitzera arte.

4. Argizko idazkunen digitalen debekatea

5. Lehiotako iragarki digitaletan irudi finkoak ez direnak debekatea eta irudi finkoak metro karratu batetik petikoak izatea

6. Plantan ematekoa eta errespetatu araztekoa sinplea den eremu definitzea

Adibidez, Paysages de France-ek gomendatzen duen bezala, 3 zonalde dituen mugekin:

- ZP0: publizitate gabe den eremua: ikastetxeetatik hurbil, hirigune historiko zabala, hiriko sartzak, naturguneak
- ZP1: hiriguneetan bizitegi-guneak nagusi diren eremua
- ZP2: hirigune batean industria eta merkataritza eremua nagusiki

7. Iragarki taulen formatuaren mugatzea 2 m²-ra

8. Bidegurutzetan, 75 m-ko erradioan, babesa, motordun ibilgailuen, oinezkoen eta txirrindularien ibilbideak bat egiten duten elkarguneetan.

9. Gogoratu hiri-altzarien publizitatearen bigarren mailako garrantzia eta zirkulazioaren noranzkoari esposizioaren eragina.

Besançon-eko Publizitateari buruzko Tokiko Araudiak (PTAk) edo Millau Grands Causse – eko Herriarteko Publizitateari buruzko Tokiko Araudiak (hPTAk) egiten duten bezala:

“Hiri-altzarietan iragarkiaren bigarren mailako garrantzia zorrozki errespetatu behar da, bereziki zirkulazioaren noranzkoa, udal informazioaren ikusgarritasuna eta haren erakusteko denbora kontuan hartuz”.